

DEBA-ZUMAIA ITSASERTZEKO BIOTOPO BABESTUA

Lur eremua

Paisaia honetan, birigarroak edo txinpartak bezalako hegazti migratzaileak erakartzen dituzten landazabalak dira nagusi. Hala ere, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiaketak bertan behera utzi diren tokietan, zelaiek landei edo sastrakadi atlantikoei utzi diete tokia. Sastrakadiotan, karraskilak eta otabera arruntak dira nagusi. Lurzoru urriko hegaletan, berriz, berezko sastrakadia pre-txilardia da, non txilardiak eta otaberak otearekin batera egoten diren. Azkenik, txilardietan, txilarrak eta oteak ez ezik, iratzeak ere hazten dira.

Biotopoko basoak Errotaberri erreka inguruan daude. Hegoaldera begira dauden magaletan artadi kantaularra hazten da; mazela hezeetan, berriz, baso mistoko atalak bereizten dira, non haritz kandudunari, lizarrak, gaztainondoak edo hurritzak gehitzen zaizkio. Eskulapioren sugearen eta Schreiber muskerraren eremua da.

Erreka-bazterrak inguratuz, haltzadien galeria estua osatzen dute, eta erreka horietan bertako ibai-karramarroa bizi da.

Itsaslabarretan lurzorua urria da, lur-jausiak gertatzen dira, olatuak kolpatu egiten dira... Bere egokitze-mailaren arabera, itsaslabarreko landareak altuera desberdinetan kokatzen dira: oinarrian, landaredi urria arrailduretan baino ez da kokatzen, baina gorago dauden erlaitzetan landare halofito ugari daude.

Intsektuak, narrasti gutxi batzuk eta hegazti txikiak dira kostaldeko labarretako fauna osatzen duten animaliak.



Itsaslabarrak, kostako sastrakadiak eta landazabalak, Mendatagañatik



Larre atlantikoak



Itsas mihilua

DEBA-ZUMAIA ITSASERTZEKO BIOTOPO BABESTUA

Itsas eremua

Itsas eremuan, malda txikiko harkaitz ohantze bat itsas algen belardietako substratua da. Horietako batzuk itsasertzera iristean biltzen dira eta industrialki aprobetxatzen dira.

Itsasertzetik hurbil, itsaslabarraren hondarrek urradura-plataforma zabala osatzen dute, itsasbeheran agerian geratzen dena eta marearen gorabeherak baldintzatzen dutena. Marearteko guneean ere zerrendak edo bandak ikus daitezke, izaki bizidunek uretatik kanpo bizitzeko duten gaitasunaren arabera eratutakoak.

Hala, zona altuan, ur azpian egunean ordu gutxi batzuk baino ez dagoen horretan, magurio eta liken beltzak agertzen dira arrokkak estaliz. Zirripedioak itsasoko zipriztinak iristen diren lekutik haratago desagertzen dira. Beste muturrean, espezie batzuk itsasbehera handienetan bakarrik ikus daitezke mareartekoaren beheko mailan.

Aldiz, mareak utzitako putzuek baldintza egonkorragoak dituzte, eta horietan, ingurumen-baldintzen aldizkako aldaketa jasaten saiatzeko asmoz, alga eta animalia asko babesten dira.

Urradura-plataformetako organismoak egokitu egin behar dira ura atxikitzeko, lehortzea saihesteko edo olatuei aurre egiteko.

Hegazti batzuk zabalgunea bisitatzen dute putzuetan eta arroken zokoetan ehizatzen.



Marearteko gunea, Algarrin



Codium generoko alga berdea



Lapa baten aztarnak, arroka batean